

Erle batetik dator mundua

LORE FESTA hemen da, furfurian. Neguaren hasieran loratu ezinik ibili zirenak, denak batera zabaldu dira otsail argian, eta behin abiatuta, martxoan ez da etengo, eguraldi on bidez. Irekiko diren loreek haizea edo intsektuak beharko dituzte, ernalduta eta fruiturantzko bideari ekiteko. Ikusgarriak, nabarmenak, landarearen kanpoko aldean, erraz antzemateko moduan dauden loreak intsektuei deika ari dira. Haizea behar duten loreak, berriz, ia ikusi ere ez dira egiten. Nork ezagutzen du haritzaren lorea? Edo intxaurrondorena? Eta badute, noski badutela lorea; bestela, ez genuke ez ezkurrik ez intxaurrrik izango.

Den-denaren hasiera lore bat da. Jakina, bada lorerik gabeko mundurik. Baina guk bizi dugun mundu hau ez litzateke lorerik gabe. Gure egunerokoa gauzatzen duen guztia lore batetik dator; izan ere, zer ez dator landare batetik? Arnasten dugun oxigenoa, edaten dugun ura, petrolioak, jakiak, edariak, arropak, plastikoa, zura, burdina egiten duen sua... Lorearen aieka estetiko soila dugu gogoan, gehienetan. Fruituaren

eta haziaren ataria izatea da, ordea, lorearen arrazoi nagusia. Fruituek zabaltzen lagunduko dituzten hazi horietatik sortuko dira geroko landare ia denak.

Nekazaritza industrialetan, hazitxak sortzen ez diren landareak ugartzen ari dira. Nola sortzen da, bada, landarea hazitik ez bada? Aldaxkatik edo txertotik. Aldaxka landare baten zati bat da, eta lurrean sartu eta itsastean, horra, landare berria. Txertoa, berriz, landare zatia beste landare baten gainean jartzea da. Bietan, sortuko ditugun landareak zatia kendu genion landare amaren klonak izango dira, amaren berdin-berdinak, kopiak.

Hazitik sortutakoak beti izango du desberdintasunen bat, eta naturak hori nahi du, desberdinak. Etorkizuneko balizko edozein baldintzatan, aurrera egiteko gai izango den baten bat izan dadin.



SEVERNJC

Eskerrak haizeari eta erleei. Euskaldunon kulturak izugarri zor dio sagardoari. Eta loratutako sagastirik gabe sagardorik ez. Eta, erlerik gabe, sagarrak ez. Duela lau-bost mende Euskal Herriko isuri atlantiko lur sail izugarriak sagasti ziren. Milioika sagardo litro behar ziren. Horrela uler daiteke erlea etxean babestea. Etxeko teilatupean izatea, eta etxekotzat jotzea, sendikoa. Erlerik gabe, ez lukete zer edan. Lorea, erlea, gu. ■



Ezpaletik

ASKO GUSTATU ZAIT Orioko errio aldameneko lorategietan zuhaixken azpiak txukun, belarrik gabe mantentzeko jarri duten materiala. Txikitxiki egindako ezpalak dira. Babes handia ematen dio horrek landareari. Garbi eusten dio landare multzoak, bestela maiz-maiz jorratu egin beharko litzateke azpia. Bestetik, egur hondakina pixkanaka usteldu egingo da eta horrek lurra ongarriztuko du. Arazotxo bat besterik ez diot antzematen: deskuiduan hezetasun handiko sasoiak etorriko balira, landarearen ipurdiaren kontraraino dagoenez, gaitzak sartu eta usteltzeko arriskua.

Dena dela, asko gustatu zait, bai. ■

JAKOBA ERREKONDO

